

HITZ BITAN

ATLETISMOA


Lasarte Oriako herri krosa 10:30ean abiatuko da gaur

Behobia-Donostia lasterketa ezaguna prestatzen ari direnek hitzordu garrantzitsua dute, gaur, Lasarten. Izan ere, *Lasarte-Oria Bai* herri krosa jokatu da, 10:30etik aurrera. 10,8 kilometroko ibilbidean ibiliko dira korrikariak, Okendo enparantzatik hasita. Parte-hartzaile guztiak hiru taldetan banatu dituzte antolatzaileek: 19 urtetik beherakoak, 19 eta 40 urte artekoak eta 40 urtetik gorakoak. Sariak maila bakoitzeko sailkatu onenentzat izango dira.

TXIRRINDULARITZA

Guidik irabazi du Italiako egutegiko azken lasterketa

Italiako egutegiko azken lasterketa jokatu zen atzo, Florencia-Pistoie klasikoa. 33 kilometroko erlojupekoa izan zen, eta ezustean, Coast taldeko Fabrizio Guidi izan zen garaile. Bere atzetik sailkatu ziren Casagrande, Petrov, O'Neil eta Delohvosciks.



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Gotzon Arrieta Gipuzkoako ordezkariak irabazi zuen orga jokoa. Hala ere, Gipuzkoak ezin izan zuen iazko garaipena errepikatu.

Euskal herrialdeetako herri kirolen txapela Nafarroak eraman du

Nazabal aizkolariak azken proban lortu du Nafarroako taldea lehenengo postuan jartzea

Jon Maya | DONOSTIA

Iaz txapela eskuratzeko zorian izan zen Nafarroa. Orduan Gipuzkoarekin berdindu zuen puntutan, baina ezin izan zuten txapela jantzi. Aurten, ordea, ez diote utzi ihes egiten, nahiz eta gogotik izerditu behar izan duten garaipena lortzeko.

Atzo Beran jokaturako jarduna oso gogorra izan zen, emozioz beterikoa. Proben erdiak jokatu zirenean, Bizkaia zen sailkapenaren buru, hiru puntuko abantailarekin, eta azken proba (aizkora) Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaia txapela eskuratzeko aukerarekin heldu ziren. Bertan, Nazabal txapelak bere nagusitasuna erakutsi zuen (gaixotutako Larretxea ordezkatu zuen eta txapela Nafarroarentzat eskuratu).

Garaipenaren gakoa, zalan-tzarik gabe, nafarren erregular-tasuna izan zen. Gipuzkoak eta Bizkaia lau eta hiru garaipen eskuratu zituzten, eta nafarrek bi soilik, baina txapeldunek ez zuten huts nabarmenik egin.

Bestalde, kokoen proban Fernando Etxegaraik Euskal Herriko errekor berria ezarri zuen (6' 02''), berak aurretik zuen marka hamar segundotan hobetuz.

SAILKAPEN NAGUSIA

KIROLA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA	NAFARROA BEHEREA	LAPURDI
Sokatira	5	7	2	6	3	4
Koxkoak	5	6	4	7	-	3
Ingudea	4	7	5	6	3	2
Lasto Altxatzea	2	7	3	6	4	5
Harri-jasotzea	5	6	7	4	-	-
Txinga-eroatea	6	2	7	4	3	5
Orga Jokoa	4	5	7	3	6	2
Zakulariak	5	4	3	6	2	7
Arpana	6	3	7	5	4	2
Aizkora	4	5	6	7	-	-
GUZTIRA:	46	52	51	54	25	30



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Lapazaran eta Bustintza, Bizkaiko ordezkariak, ingude eta lasto probako irabazleak.



**Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
Tel.: 943 797 564**

Km 00

FOCUS

.....14i - 3 atekoa

FOCUS

.....18 TDi - 3 atekoa

FOCUS

.....16-SW

MONDEO

.....TDi 115 - 4 atekoa(3)

MONDEO

.....TDCI 130 - SW

FIESTA

.....13i - 5 atekoa

FIESTA

.....TDCI - 5 atekoa(2)

DENAK 2002KOAK